



Lazpitabekoa (-a) etxebizitza

Aldacrak: Lazpitazpikoa / Lazpitabarrena
Ahozkoa: Láspitte békue



43° 11' 29"

2° 36' 17"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Jatorrizko *Lazpita* (**Ikus Lazpita**) baserriaren eranskina edo etxe-txikia omen zen egungo baserri-etxe hau. Fatxadan aurkitzen dugun inskripzioari erreparatuta, ikusten dugu baserri hau 1926. urtean eraiki zela: “*LAZPITA BARRENA/ FUE CONSTRUIDO/ POR/ D. JUAN LAZPITA/ Y/ D. CATALINA GANGOITIA/ AÑO 1926*”. Horrek ordura arteko dokumentazio guztiaren aipuak aldatzen baititu. Horrela, egungo *Lazpitaerdikoa*, data hori baino lehen *Lazpitabarrena* eta *Lazpitazpikoa* zen. Gauza bera gertatzen da Lazpitagoikoarekin, 1926. urtea baino lehen *Lazpitaerdikoa* izango baitzen, eta *Lazpitalarra* etxearen kasuan, *Lazpitagoikoa* izango zen izena.

Bi isurkitako teilatupean beste horrenbeste etxebizitza igartzen dira, fatxadari erreparatuz gero. Hala, antolamendua guztiz simetrikoa da, hiru solairutan eta ganbaran banatuta. Ardatz gisa ditu inskripzioa eta gailur azpiko leihoa. Etxearen beheko solairua harrizkoa da, harlangaitzaz egina, eta ondo markaturik dauzka tarte guztiak. Inposta-marra batek bereizten du gaineko solairuetatik. Hormak pintatuta daude, leihoen eta balkoien ertzak ez bezala, harlanduzkoak baitira. Bi solairuetan, erditik aldamenara, balkoia eta leihoa daude: lehenengoan, burdinazkoa; eta bigarrenean, egurrezkoa, bi baoak lotuz.

toponimia

Euskaraz, denboran zehar, era asko egon da “beheko aldea” izendatzeko eta hori, askotan, etxe izenetan ikusten da aipu zaharrenetan egun erabiltzen ez diren beitia edo beaskoa moduko formak agertzen direlako. Kasu honetan XVIII. mendeko aipuetan barren dugu, 1905ean azpikoa eta gaur egun bekoka (**Ikus Lazpita**).